URKOME
UROLA KOSTAKO LANDA GARAPENEKO ELKARTEA

1. SEKTOREAREN AZTERKETA

ZARAUTZ

URKOME

16

AURKIBIDEA

1. SARRERA 4

1.1 HELBURUA 4

1.2 METODOLOGIA 4

2. ZARAUTZ 4

2.1 HERRIA 4

2.2 GEOGRAFIA 5

2.3 DEMOGRAFIA 6

2.4 EKONOMIA 7

3. LEHEN SEKTOREA 10

3.1 BASERRIAK 10

3.2 ESPLOTAZIO MOTAK 11

3.3 SALMENTA BIDEAK 14

3.4 LURZORUAREN ERABILERA 17

3.5 ZIURTAGIRIAK 19

3.6 ESTALDURA, KIDETZA 20

3.7 PROFESIONALTASUN MAILA ETA LANGILE KOPURUA 21

3.8 TRANSFORMAZIO GUNEAK ETA PRODUKTUEN BALIO ERANTSIA 22

3.9 ONDORENGOTZA 23

4. BERTAKO PRODUKTUEN KONTSUMOA 25

4.1 ZARAUZKO ELIKAGAIEN ESTABLEZIMENDUAK 25

4.2 ZARAUZKO JATETXE ETA TABERNAK 26

4.3 ZARAUZKO JANGELA KOLEKTIBOAK 28

5. MERKATUA 28

5.1 EGOERA 29

6. BEHARRA, PROPOSAMENAK, ESKAERAK 29

6.1 URTETA 30

6.2 AITZA 30

6.3 ARGOIN 31

6.4 ELKANO 31

6.5 SANTA BARBARA 31

6.6 UNTZAIN-ASTI-TALAIMENDI-ABENDAÑO 32

6.7 MERKATUA 32

6.8 OROKORRAK 33

7. EKINTZA PLANA 34

1. SARRERA.

1.1 HELBURUA:

Zarauzko udalaren helburuen artean dago baserritarren garrantzia aintzat hartzea eta herriko lehen sektorea indartzea.

Nabarmena da, gaur egun, herri, eskualde, probintzia, lurralde mailan ustiaketetan errelebo generazional baten falta dagoela. Honen aurrean denok ados gaude zerbait egin behar dela, 1. sektorearen desagerpenaren lehen urratsak burutu ez daitezen.

1.2 METODOLOGIA:

Bi eratako informazio iturri erabili ditugu txosten hau garatzeko orduan:

1. Estatistika serie ofizialak: Grafikoak eta taulak partekatzen dira txostenean, aztertutako datuen interpretazioa errazagoa eta garbiagoa izateko. Hauek informazio iturri ezberdinetatik jasotako datuekin osatu ditugu, esaterako EUSTAT (Euskal Estatistika erakundea), gipuzkoa.net, Euskadiko jarduera ekonomikoen zerrenda 2012, INE (Estatistikako institutu nazionala), www.gaindegia.eus, www.datuak.net, www.atlasa.net, www.euskalgeo.net, Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun ministerioa, Lanbide, datuak.eus, www.murkil.com, sepe.es, Zarauzko udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoa irekia, www.foro-ciudad.com.

2. Elkarrizketa pertsonalak: Azterketarako, beharrezkoak genituen datuekin inkesta eredu bat osatu dugu, baserriz baserri egindako elkarrizketetan informazioa jasotzeko erabili duguna. Elkarrizketak, 2016ko Ekainaren 22an hasi eta 2016ko Urriaren 26 bitartean egin ditugu. Baserritar denekin telefono bitartez jarri gara kontaktuan. Lehenik azokan postuan egoten direnekin hitz egin dugu eta ondoren besteekin. Guztiak, 0.2 NLU (Nekazaritzako Lan Unitatea)-tik gora dauzkate. Baserritar gehienek atseginez hartu gaituzte, nahiz eta salbuespenen bat eduki dugun. Elkarrizketak egin ez ditugun ustiaketak ere badaude; hau bi arrazoirengatik gertatu da, bata titularrak hitz egiteari uko egin diolako (adindun pertsonak direlako edota ez direlako sektoretik bizi) eta bestea ezin izan garelako beraiekin kontaktuan jarri (kontaktua gaizki dugulako edo ez dutelako deia erantzun).

2. ZARAUTZ.

2.1 HERRIA:

Zarautz, Gipuzkoako kostaldearen erdialdeko udalerri bat da, Urola Kosta eskualdekoa. Zarauzko hondartza, Euskal Autonomi Erkidegoko luzeena da eta Euskal Herriko bigarren luzeena, 2,8 kilometro dauzka.

2.2 GEOGRAFIA:

2.2.1 Ingurune naturala:

Udalerriaren hegoaldean Pagoetako natura parkea dago. Bestela, ekialdean eta Talaimendi oinean Iñurritza biotopo babestua dugu, izen bereko ibaia eta Zarauzko hondartzaren artean.

2.2.2 Udalerri mugakideak:

Honako udalerri hauek mugakide ditu; mendebaldean Getaria eta Aizarnazabal, hegoalde eta ekialdean Aia, eta iparraldean Bizkaiko Golkoa.

2.2.3 Auzoak:

Zarautz 21 auzotan dago banatua eta hiru industri poligono ditu:

1. **Herrigunean**: Alde Zaharra, Aritzbatalde, Azken Portu, Itxasmendi, Hegoalde, Iñurritza edo San Pelaio, Irita, Mendilauta, Salberdin, Salbide, Vista-Alegre eta Zelai-Ondo.

2. **Herrigunetik kanpo:** Abendaño, Aitze, Argoin, Asti, Elkano, Santa Barbara, Talaimendi, Untzain eta Urteta.

3. **Industri poligonoak:** Abendaño, Errotaberri eta Bustinzuri.

2.3 DEMOGRAFIA:

2.3.1 Biztanlegoaren bilakaera. 1900-2015:

1900 urtetik gaur egunera, Zarauzko biztanleriaren hazkundea handia izan da 2015 urteko datuekin konparatuta. 1900 urtean 2.838 biztanle zeuden eta 2015ean 22.988, %810 gehiago.

ZARAUZKO BIZTANLEGOAREN BILAKAERA 1900-2015			
Urtea	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Totala
2015	11.209	11.779	22.988
2014	11.159	11.731	22.890
2012	11.094	11.556	22.650
2010	11.137	11.521	22.658
2008	11.049	11.425	22.474
2006	11.048	11.275	22.323
2004	10.840	11.066	21.906
2002	10.616	10.850	21.466
2000	10.199	10.439	20.638
1998	9.716	10.000	19.716
1995	9.417	9.644	19.061
1993	9.118	9.310	18.428
1991	8.915	9.092	18.007
1989	8.465	8.562	17.027
1987	8.259	8.346	16.605
1981	0	0	15.071

1960	0	0	8.272
1940	0	0	5.251
1920	0	0	2.579
1900	0	0	2.838

Taula 1. Zarauzko biztanlegoaren bilakaera 1900-2015 (Iturria: www.foro-ciudad.com)



Grafika 1. Zarauzko biztanlegoaren bilakaera 1900-2015. (Iturria: www.foro-ciudad.com)

2.3.2 Biztanlegoaren dentsitatea:

2015 urtean, Zarautzek 22.988 biztanle zituen eta 14,80kilometro karratuko azalera. Hau horrela izanik, 1.553,24 biztanle zituen kilometro karratuko.

Euskal Autonomi Erkidegoan, 2.189.257 biztanle zeuden 7.234 kilometro karratuko azalera batekin. 302,63 biztanle kilometro karratuko dentsitatea eta Gipuzkoan 716.834 biztanle 1997 kilometro karratutan, 358,95 biztanle kilometro karratuko dentsitatearekin.

Zarauzko biztanleriaren % 48,77 gizonekoa da eta ondorioz %51,23 emakumezkoa.

ZARAUZKO BIZTANLEGOA. SEXU ETA ADINAREN ARABERA. 2015			
Adina	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Totala
0-4	528	516	1.044
5-9	601	598	1.199
10-14	676	602	1.278
15-19	629	576	1.205
20-24	553	562	1.115
25-29	606	596	1.202
30-34	690	678	1.368
35-39	918	863	1.781
40-44	954	931	1.885
45-49	827	949	1.776
50-54	910	949	1.859
55-59	788	826	1.614
60-64	659	687	1.346
65-69	644	718	1.362

70-74	461	522	983
75-79	309	410	719
80-84	282	358	640
85-	174	438	612
Totala	11.209	11.779	22.988

Taula 2. Zarauzko biztanlegoa. Sexu eta adinaren arabera 2015. (Iturria: INE padrón municipal 2015).



Grafika 2. Zarauzko biztanlegoa. Sexua eta adinaren arabera 2015. (Iturria: INE padrón municipal).

Biztanleriaren sexu eta adinaren datuetan oinarrituz, biztanlegoaren %30,64 0-29urte artean dago, %50,28 30-64artean eta %18,78a 65urtetik gorakoak dira, hau horrela izanda, orokorrean biztanleria gaztea dagoela esan dezakegu.

2.4 EKONOMIA:

Argitaratuta dauden azken datuak kontuan hartuta, Zarautz, Urola Kosta, Gipuzkoa eta Euskal Autonomi Erkidegoko datuak alderatuko ditugu.

- Balio Erantsi Gordina (BEG):

2012ko datuei begirada bat botatzen badiogu, Gipuzkoan Industria sektoreak duen inportantzia ikus dezakegu, nahiz eta sektorerik garrantzitsuena Zerbitzuen sektorea izan. Nekazaritzaren sektorea da pisu gutxien duen sektorea.

BALIO ERANTSI GORDINA (%)					
	Urtea	Udalerria	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Nekazaritza-arrantza sektorea	2012	0,60	2,30	0,70	0,80
Industria sektorea	2012	13,80	35,00	28,60	24,20
Erailuntza sektorea	2012	7,20	8,00	6,90	7,00
Zerbitzu sektorea	2012	78,40	54,70	63,80	68,00

Taula 3. Balio Erantsi Gordina 2012. (Iturria: Eustat, Zarauzko udalmap).



Grafika 3. Balio Erantsi Gordina sektoreka, Zarautz 2012. (Iturria: Eustat, Zarauzko udalmap).

- Okupazio tasa:

2011 urtean, okupazio tasarik baxuena Zarautzen, Urola Kostan, Gipuzkoan eta Euskal Autonomi Erkidegoan nekazaritza sektorean izan zen eta altuena berriz zerbitzuen sektorean.

16 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLE LANDUNAK (%)					
	Urtea	Udalerria	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Nekazaritza-arrantza sektorea	2011	0,87	1,91	0,89	1,02
Industria sektorea	2011	22,71	30,65	23,59	19,86
Eraikuntza sektorea	2011	6,82	7,46	6,97	7,44
Zerbitzu sektorea	2011	69,58	59,96	68,53	71,66

Taula 4. 16 urte edo gehiagoko biztanle landunak 2011. (Iturria: Eustat, Zarauzko udalmap).



Grafika 4. 16 urte edo gehidoko biztanle landunak sektoreka Zarautzen 2011. (Iturria: Eustat, Zarauzko udalmap).

- Erregistratutako langabezi tasa:

Langabezi tasa modu proportzionalean banatzen da, sektore garrantzitsuenetan tasa altuagoa izanda. Ala nola, 2012ko Abenduaren 31an erregistratutako datuen arabera, Gipuzkoan %63,49ko tasa zegoen zerbitzuetan, %18,56 industrian, eraikuntzan %6,82a eta %1,31, baxuena, nekazaritzan.



Grafika 5. Langabezia sektoreka Gipuzkoan. (Iturria: Estatuko lanerako zerbitzu publikoa. 2012/12/31).

Langabeziaren datu orokorrak, 2015ekoak ditugu, non Zarautzen 16 eta 64 urte bitartean %8,16a zen, Urola Kostan %8,78a, Gipuzkoan %9,09a eta Euskal Autonomi Erkidegoan %10,70a.

45 urtetik gorakoen langabezi datuak berriz honakoak ziren: Zarautzen %8,46a, Urola Kostan %8,99a, Gipuzkoan %9,47a eta Euskal Autonomi Erkidegoan %10,96a

Epe luzerako 16 eta 64 urte arteko biztanleen langabezi tasa honakoa zen, Zarautzen %3,59a, %4,02a Urola Kostan, %4,61a Gipuzkoan eta Euskal Autonomi Erkidegoan %5,78a.

ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA TASA (%)					
	Urtea	Udalerria	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
16-64 urte arteko biztanleak	2015	8,16	8,78	9,09	10,70
45 urte edo gehiagoko biztanleak	2015	8,46	8,99	9,47	10,96
Epe luzekoa (16 eta 64 urte arteko biztanleak)	2015	3,59	4,02	4,61	5,78

Taula 5. Erregistratutako langabezia tasak (%) 2015. (Iturria: Eustat, Zarauzko udalmap).



Grafika 6. Erregistratutako langabezia tasak (%) 2015. (Iturria: Eustat, Zarauzko udalmap).

3. LEHEN SEKTOREA.

3.1 BASERRIAK:

Elkarrizketak egiten hasi aurretik, beharrezkoa iruditu zaigu **Zarautz herrian erroldatuta dauden baserrien zerrenda** bat egitea, honela guztiak identifikaturik eduki eta elkarrizketa nori egin erabakitzeko.

Guztira 133 baserriren zerrenda bat atera zaigu. Lan hau burutzeko baserri guztien lagin bat erabili nahi izan dugu eta zein baserri aukeratu erabakitzeko irizpide ezberdinak hartu ditugu kontuan.

Lehen azpi sailkapen bat egiteko, guk genituen datuak erabili ditugu; bertan bakoitzaren NLU-ak (Nekazaritza Lan Unitatea) izan ditugu kontuan. Kasu honetarako **0,2 NLU-tik gorako baserriak** hartu ditugu, beraiekin hitz egitea interesgarriagoa iruditu zaigulako gure azterketarako.

Zarauzko udalarekin lan honen baitan hitz egiten hasi ginenean, argi genuen guztiok, elkarrizketak egiten hasi aurretik baserritarrei/ ekoizleei proiektu honen berri eman behar geniela. Horretarako, herriko baserri guztietara gutun bat bidali zen udaletxetik bilera batera deialdia eginez. **Bilera honetara agertutako baserritarrak** ere elkarrizketak egiteko sailkapenera gehitu ditugu, beraiek azaldu duten interesa dela eta.

Sailkapen honekin amaitzeko, egokia iruditu zaigu **Merkatu plazan postua duten baserritar/ekoizleekin** hitz egitea, horregatik gure sailkapenean sartu ditugu. Merkatuan egoten diren ekoizle guztiak ez dira Zarauztarrak, dena den bertako nahiz kanpokoekin hitz egitea erabaki dugu.

Azpi sailkapen hau egin ostean, **84 baserri/ekoizleren taula orokor bat** gelditu zaigu. 84 horietatik 72 dira Zarauztarrak eta 12 kanpokoak.

Identifikazio honekin amaitu ostean, beraiekin kontaktuan jartzen saiatu gara. **Zarauzko** 72 baserritarretik, **42rekin elkartzea lortu dugu eta kanpoko ekoizleen kasuan**, 12tik **birekin.**

Gu izan gara beraiengana bertaratu garenak, ondo etortze zitzaien egun eta orduan eta beraiek esandako tokira, baserrritar/ekoizleei dena errazagoa izateko.

3.2 ESPLOTAZIO MOTAK:

Elkarrizketa burutu ondoren, jarduera tipologia ezberdinen arabera sailkapen bat egin dugu, guztira 6 jarduera ezberdinetan sailkatu ditugu. Beste puntu bat ere kontuan hartzeko interesgarria iruditu zaigu, landa eremuan edo baserrian bizi diren pertsonak baina jarduerarik ez daukatenak edota 1.sektoretik bizi ez direnak.

Sailkapen hau egiterakoan, hitz egin dugun ekoizle guztietatik Zarauzkoak bakarrik hartu ditugu kontuan, puntu honetan Zarauzko esplotazio motengatik hitz egin nahi dugulako soilik.

Garrantzitsua da guretzako azaltzea kanpokoak kenduta gelditzen diren 42 baserri horietatik bi baserri batera kontatu ditugula, biek izen berean egiten dutelako lan, arrazoi honegatik datu bilketan eta elkarrizketa egiterako garaian bat bezala kontatu ditugu. Guzti hau horrela izanda 41 baserri hartuko ditugu kontuan.



Grafika 7. Baserrien jarduera tipologia.

Baserri batzuek, jarduera bikoitza edo hirukoitza egiten dutela kontuan hartu behar dugu.

Emaitza hauen ondorioz, esan dezakegu Zarauzko jarduera nagusiena abeltzaintza dela, 19 ekoizlerekin. Frutarbolak eta baratza lantzen dituztenak bederatzi dira, bietan kopuru berdina. Gutxien lantzen den jarduera lore/landareena da, hiru ekoizlerekin. Landa eremuan ere, ostalaritzak eta nekazalturismoak, konprobatu dezakegunez beraien garrantzia daukate lehenaren bost establezimendu eta bigarrenaren lau daudelarik. Azpimarratzeko datu bat iruditu zaigu jarduerarik ez daukaten baserrien kopurua zortzikoa dela.

BASERRIEN JARDUERA TIPOLOGIA %							
Jarduera	Baratza	Frutarbolak	Abeltzaintza	Ostalaritza	Lore/Landare	Nekazalturismo	Jarduera eza
Portzentajea	%15,79	%15,79	%33,33	%8,77	%5,26	%7,02	%14,03

Taula 6. Baserrien jarduera tipologia (%).

Aurreko sailkapena egiterakoan, argitu beharra ikusten dugu, jardueraren bat dutela aipatzen dugunean, baserrian jarduera horretatik diru sarreraren bat jasotzen dutelako dela eta jarduera eza, ez dagoelako diru sarrerarik.

Esan beharra dago, jarduerarik ez daukaten baserriak nahiz jardueraren bat daukatenak, beraien kontsumorako jardueraren bat lantzen dutela.



Grafika 8. Baserrien jarduera kopurua.

Goiko grafikoa kontuan hartuta, ikus dezakegu 41 baserritik 18k jarduera bakarra daukatela, 14k bi jarduera eta bakarra dela hiru jarduera dituena. 8 baserri dira jarduerarik ez daukaten baserriak.

Baserriko jardueretatik diru sarrerarik ez dutenen %100ak baratza bat dauka etxeko kontsumorako. Zortzitik bostek baratzaz gain animaliak ere badituzte eta beste birek baratza, animaliak eta frutarbolak. Beraz, bakarra da baratza bakarrik duena.

Jarduera duten 33 baserritik, 11k kanpoan lan egin behar dute diru sarrera gehiago edukitzeko eta bizitza aurrera atera ahal izateko (beraien hitzetan ezin baitute baserriko diru sarrerekin bakarrik bizi).

Bestalde abeltzaintza lantzen dutenetatik 13 ekoizlek lantzen dituzte haragi behiak, 4ekoizlek esne behiak. Ekoizle bakarra dago esne nahiz haragi behiak lantzen dituena eta bakarra da baita ere arkumeekin lan egiten duen ekoizlea.



Grafika 9. Abeltzaintza jardueraren banaketa azpi jardueretan.

Frutarbolen kasuan, mahatsak eta sagarrak lantzen dira. Bederatzi ekoizletik, laurek lantzen dute sagarra eta bostek mahatsa.



Grafika 10. Frutarbolaren jarduera azpi jardueretan.

Mahatsa lantzen duten hauetatik hiruek daukate beraien txakolin marka. Guztiek daukate bodega, beraien mahatsa txakolinean transformatzeko, bakarra da ordea ez duena ostalaritza zerbitzua ematen.

2 ekoizle dira beraiek bildutako mahatsa saltzen dutenak, horietatik batek beraren txakolin bodega beste batzuei alokatua dauka, eta beraiei saltzen die mahatsa. Honek beste txakolin marka bati alokatua dauka mahastiaren lur sail bat. Beste bi ekoizlek daukate mahastia alokairuan, beraiek beste jarduera bat burutzen dutelarik.

Grafikoan ikusi ahal izan dugun bezala, Zarautzen mahatsez gain, sagarren lanketak ere garrantzia handia daukala. Sagardotegi bateko nagusiekin hitz egin ahal izan dugu eta berauek beraien sagarrondotik biltzen dute fruitua, beraiek egiten dute sagardoaren elaborazioa eta beraien sagardotegian kontsumitzen da gehien bat. Beste bostek sagarra sagardogileei saltzen diete, beraiek bildu ondoren. Mahastiekin alderatuz, ez dago sagar ondorik alokairuan.

3.3 SALMENTA BIDEAK.

Salmenta bideak aztertzerako garaian, egokiena, jardueraren araberako sailkapena (ikus grafika7, 11.orrialdea) erabiltzea iruditu zaigu eta horrela, salmenta jarduera ezberdin bakoitzean ikertu.

3.3.1. Barazkien salmenta: Esan bezala, barazkiak bederatzi ekoizle ezberdinek lantzen dituzte eta salmenta bide ezberdinak agertu dira.



Grafika 11. Barazkien salmenta ezberdinak.

Bost ekoizlek, erdiak baino gehiagok azokan bakarrik egiten dute salmenta; bi ekoizlek azokan saltzeaz gain,herriko hainbat taberna/jatetxetara ere saltzen dute; ekoizle batek, azokaz gain, salmenta supermerkatuetan, herriko dendetan eta internet bidez egiten du eta azkenik, beste batek, supermerkatuetan bakarrik saltzen du.

3.3.2. Abeltzainen salmenta:

Abeltzainen salmenta ezberdinak aztertzeko, lehen egindako banaketa (ikus grafika 9, 13.orrialdea) kontuan hartzea erabaki dugu. Banaketan ikusi dugun bezala, ekoizle bat dago esne eta haragitarako behiekin lan egiten duena, hau salmenta sailkapena egiterakoan, bi salmentetan sartu dugu, bai esnean eta baita ere haragian.

Haragitarako behiez hitz egitean, 14 ekoizle daude lantzen dutenak. Kasu honetan salmenta bide ezberdinak agertu dira.



Grafika 12. Haragitarako behien salmenta bideak.

Ikusten denez, ia erdiak, sei ekoizlek, zuzenean harategietara saltzen dute. Hiru ekoizlek, egiten dute salmenta zuzenean hiltegira eta beste hirurek, maiorista bati saltzen diote. Ekoizle batek, beste baserritar bati saltzen dio (gaztea dela saltzen du besteak hazi dezan) eta beste batek ganadu tratulari bati egiten dio salmenta.

Esnetarako behiez hitz egiten dugunean 5 ekoizle aurkitzen ditugula aipatu dugu. Ohikoena salmenta Kaikuri egitea da. Beheko grafikoan ikusi ahal izango dugun bezala, lau ekoizlek, esnearen salmenta Kaikuri egiten diote eta ekoizle bakar batek, Kaikuri egiteaz gain, jatetxe/taberna batzuetara egiten du eta baita ere Zarautzen puntu batean jarrita daukan esne makina baten bitartez ere.



Grafika 13. Esnearen salmenta bideak.

Jarduera honekin amaitzeko **arkumeak** gelditzen zaizkigu. Ekoizle bakar bat dago eta Urkaikoko hiltegira eramaten ditu.

3.3.3. Fruten salmenta:

Puntu honetan, **sagarrak eta mahatsak saltzen dituztenak** hartu ditugu kontuan. Guztira bost ekoizle daude. Hiru txakolin ekoizle eta sagardo ekoizlea hurrengo puntuan aztertuko ditugu.

Hurrengo grafikoan ikus ahal dugun bezala, hiru ekoizlek, sagarra lantzen dute eta sagarra zuzenean sagardo ekoizle ezberdinei saltzen diete, beste bi ekoizlek mahatsekin egiten dute lan eta txakolin ekoizleei saltzen diete zuzenean.



Grafika 14. Fruten salmenta bideak.

3.3.4. Txakolin eta sagardo salmenta:

Kasu honetan hiru txakolin ekoizle eta sagardo ekoizle bat aztertu ditugu.

Txakolin zaleen kasuan, salmenta motak ez dira oso ezberdinak beraien artean. Hiruak daukate salmenta zuzena beraien bodegan eta hiruak aurkitu ditzakegu bai dendetan, supermerkatuetan eta jatetxe nahiz tabernetan (normalean banatzaile bitartez ibiltzen dira). Nahiz eta hiruak daukaten web orrialdea, birek bakarrik ematen dute bertatik erosteko aukera. Elkarrizketan, bi ekoizle hauek izan dira esportazioari buruz hitz egin digutenak, batak Euskal Herrian eta estatuan saltzeaz gain, Europara eta AEB -tara saltzen du. Besteak AEB bakarrik aipatu digu.

Sagardo ekoizlearen kasuan, bakarrarekin egon gara eta berak ekoizten duen ia dena beraien sagardotegiko barriketara joaten da, gutxi sartzen dute botilan eta botila gutxi horiek beraien sagardotegi/jatetxerako izaten dira.

3.3.5. Lore eta landare salmenta:

Jarduera hau burutzen duten hiru ekoizlerekin egon gara.

Hirurek salmenta bide ezberdinak dituzte.

Ekoizle batek herriko dendetan bakarrik saltzen du eta beste batek berriz Zarauzko azokan bakarrik. Hirugarren ekoizlea da salmenta bideak gehien ireki dituena, honek, dendetan saltzeaz gain, jatetxeetan, internet bidez eta berauen mintegian salmenta zuzena egiten dute.

3.4. LURZORUEN ERABILERA:

Urola Kostako laborantza azalera guztira 21.799,12 hektareakoa da. Azalera hamaika herrialdetan dago banatua. Horrela da banaketa horren emaitza: Aia %16,77, Orio %1,99, Zarautz %3,39, Getaria %3,28, Zumaia %2,30, Aizarnazabal %3,04, Zestoa %14,33, Azpeitia %23,59 Azkoitia %18,41, Beizama %3,96 eta Errezil %8,94.



Grafika 15. Urola Kostako Laborantza azalera banaketa herriz herri hektareatan 2016. (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia).

Hurrengo grafikoan (grafika 16) Urola **Kostan alta emanda dauden lurren erabilera ezberdinak** zein diren ikusi ahal dugu eta bakoitzak zein eremu kantitate okupatzen duten. Lur eremu handiena baso eremua da, 13.001,49 hektarearekin eta ondoren bazka-landareena 7.266,75 hektarearekin. Eremu txikiena berriz loreena da, 1,45 hektarearekin.



Grafika 16. Alta emanda dauden lurren erabilera ezberdinak Urola Kostan hektareatan 2016. (Iturria: GFA).

Zarautzen kasuan, eremurik handiena bazka landareena da, 304,76 hektarearekin eta ondoren baso eremua 266,53 hektarearekin. Kasu honetan ere gutxienetako eremua daukana loreena da, hektarea batetara iristen ez delarik, 0,97 hektarearekin.



Grafika 17. Alta emanda dauden lurren erabilera ezberdinak Zarautzen hektareatan 2016. (Iturria: GFA).

3.4.1. Ekoizleen lurrak:

Gaur egungo ekoizle bakoitzaren lur zailen egoera aztertzeko, beraiekin hitz egindakoari erreparatzea pentsatu dugu.

41 ekoizletik birek bakarrik azaldu dute ez daukatela lurrik eta beste baten kasuan berriz, lurrak herentzia bidez jasotakoak direla eta askorenak diren momentuan oso zaila izango litzatekeela beraiekin zer egin akordio batetara iristea (gaur egun denak saldu egin nahi dituzte, jabe bat dago aurka, elkarrizketa egin dioguna).

Ekoizleekin hitz egiterakoan, beraien egoerari buruz (lur denak erabiltzen dituzten, besteen lurrik erabiltzen duten, etab) jardun dugu. Jasotako erantzunak hurrengo grafikoan jaso ditugu.



Grafika 18. Ekoizleen lurren egoera.

Grafikoan ikus dezakegunez, hamalau ekoizlek, erabiltzen dituzte beraien lur denak. Ekoizleak soberan dauzkaten lurrak beste bati uzteko egoeraren aurrean, zazpi ekoizle, ezkor agertu dira, beraien lurrak ez dituzte utziko eta sei ekoizle, baikor, berain lurrak uzteko prest.

Sei ekoizlek, azaldu digute jada beraiek erabiltzen ez dituzten lurrak eta probetxugarriak direnak beste ekoizle batzuei utzita dituztela. Alderantziz ordea, bi ekoizlek, esan digute beste batzuen lurrak erabiltzen dituztela. Gelditzen diren hiru ekoizleak, ez dakite beraien lurrekin zer egin luketen.

3.5 ZIURTAGIRIAK:

Zarauzko ekoizleen gehiengoak, inolako ziurtagirik gabe egiten dute lan. 33 ekoizletik, 20 dira hain zuzen ziurtagirik ez dutenak.

Txakolina ekoizten duten hiruek eta mahatsa saltzen duten biak , bostak Getariako Txakolinaren barruan daude.

Sei ekoizle daude Label barruan gaur egun. Hauetariko gehienak, lau, haragi behien ekoizleak dira, esnea lantzen duen bakarrak dauka eta arkumearekin jarduten duenak ere bai. Hiru ekoizlek gaur egun Labeletik kanpo daudela azaldu dute (orain urte batzuk Label barruan zeuden) eta ekoizle bakarra da ez dakiena gaur egun zein egoeratan dagoen.

33 ekoizletik, bi ekoizlek daukate ekologiko ziurtagiria; batek landare ekologikoak ekoizten ditu eta besteak sagarrak, berak saltzen dituen sagarrekin egindako sagardoak dauka ziurtagiria. Inongo ziurtagirik ez daukaten ekoizleetatik, bi dira ekoizpen ekologikoaren arauen barruan ekoizten dutenak.



Grafika 19. Ekoizleen ziurtagiri ezberdinak.

3.6 ESTALDURA, KIDETZA:

3.6.1. Estaldura:

Nekazal Gizarte asegurantza	Bai	Ez	Ez daki
33	% 72,72	% 15,15	% 12,12

Taula7. Nekazal Gizarte Asegurua.



Grafika 20. Nekazal Gizarte Asegurua.

Elkarrizketa hauetan jaso ahal izan ditugun datuen arabera, esan genezake Zarauzko ekoizleak, orokorrean, gizarte asegurantza aldetik babestuta eta era egokian daudela.

Ekoizle guztietatik, 24 ekoizlek, Nekazal Gizarte Aseguruaren barruan garatzen dutela adierazi digute, lau ekoizlek, ezezkoa agertu duten bitartean. Bost ekoizle, ez dira zehatz erantzuteko gai izan.

3.6.2. Kidetza:

Elkarrizketa hauetatik ondoriozta ahal duguna, baserritarren gehiengoa, 19 ekoizle ez direla inongo elkarteren kide. 14 ekoizle daude elkarteren batean kide modura. Bi ekoizleren kasuan, bi elkarteren kide dira aldi berean.



Grafika 21. Baserritarren kidetza.

Nekazal sindikatuen presentzia nabarmentzen da, zortzi ekoizle EHNE sindikatuaren kide dira eta ekoizle bat ENBAkoa.

3.7. PROFESIONALTASUN MAILA ETA LANGILE KOPURUA:

3.7.1. Profesionaltasun maila:

33 ekoizletatik, 20k autonomo bezala jarduten dute lanean, guztiak Nekazal Gizarte Aseguruan alta emanda daudelarik. Guztiak ez dira jarduten beraien ustiaketan soilik lanean.

Jarduera bat landu eta bertatik irabazia ateratzen duten 33tik, bostek jubilaturik daudela esan digute. Hiru ekoizle dira beraien egoera zein den ez dakitenak. Ekoizle bakarra dago, ustiaketaz gain, lehen sektorearekin zerikusirik ez duen beste lan batetan jarduten duena, beste pertsona batek kontrataturik.

Ekoizle guztien artetik, laurek bakarrik daukate elkarte bat eratuta.



Grafika 22. Ekoizleen profesionaltasun maila.

3.7.2. Langile kopurua:

Hitz egin dugun ekoizleetatik, gehienak, 24 ekoizlek, ez daukate langilerik, beraiek bakarrik egiten dute lan eta kasu batzuetan etxekoek laguntzen diete.

Bost ekoizlek, langile bat dute kontrataturik beraientzako lan egiten eta ekoizle bakar batek, bi langile. Hiru langile edo gehiago dituzten ekoizleak hiru dira.



Grafika 23. Ekoizleak daukaten langile kopurua.

3.8. TRANSFORMAZIO GUNEAK ETA PRODUKTUEN BALIO ERANTSIA:

Puntu hau aztertzerakoan, bi ekoizle kanpo utzi ditugu, biak ere lehen sektoreko jarduerarik ez daukatenak, nekazalturismo eta ostalaritza soilik lantzen dituztenak.



Grafika 24. Transformazio guneak.

Transformazio guneei dagokionez, ikus dezakegunez ekoizle erdiak baino gehiagok, zehatzago esanda 24 ekoizlek, ez daukate transformazio gunerik. Hauetatik birek bakarrik agertu dute interesa epe ez oso luze batean beraien transformazio gune bat jartzeko ideiaren aurrean.

Transformazio gunea daukaten ekoizleak zazpi dira. Horietatik bakarra da bertatik irabazirik ateratzen ez duena, tolare bat daukate, etxerako sagardoa egiteko. Zazpi hauetatik lau, bodega dira, hiru txakolinarenak eta bestea sagardoarena. Beste ekoizle batek, lora moztuekin egiten du lan eta lore horiek transformatzeko gune bat dauka; eta azkenik, beste ekoizleak, esne behiekin egiten du lan eta pasteurizadora bat dauka.



Grafika 25. Balio erantsia.

Balio erantsia daukaten produktuen ekoizleen kasuan, zenbakia aldatu egiten dira, baina ez asko. Hogei ekoizle dira beraien produktuek balio erantsirik ez dutenak eta hamaika badutenak. Hamaika horietatik, lau ekoizlek beraien produktuak hirugarren bati saltzen diote eta hark ematen die balio erantsia, hau da, bi ekoizlek sagarrak saltzen dizkiete sagardogile bati eta hark egiten du sagardoa eta beste biak berdina egiten dute baina mahatsarekin, hirugarrengo batek txakolina egiteko. Hamaika hauetan daude baita ere lehengo hiru txakolindegi eta sagardotegia ere, hauek beraien txakolin eta sagardoa egiten dutelarik. Lehen aipatutako lore eta esne behi ekoizleak ere aurkitzen ditugu hemen, lehenak lore sortak egiten ditu eta bigarrenak esan bezala esnea pasteurizatzen du horrela saltzeko. Aurkitzen dugun azken kasua, hirugarrengo baten transformazio gunea erabiliaz beraren produktuak transformatzen dituen ekoizlearena dugu, Zarauzko kasuan bakarra.

3.9. ONDORENGOTZA:

Nekazal edo baserri jarduerarekin lotuta, ondorengotzak duen garrantzia izugarria da, dagoeneko jarduerak burutzen dutenak mantentzea ezinbestekoa da, ezagutzen duguna mantendu ahal izateko.

Puntu hau ikertzerakoan eta grafikoa egiterakoan, elkarrizketatu ditugun baserritar guztiak hartu ditugu kontuan, jarduera dutenak eta jarduerarik ez daukatenak.



Grafika 26. Etorkizunerako egoera.

Grafiko honen arabera, gaur egun elkarrizketatutako bederatzi ekoizlek, ez dute ondorengotzan pentsatu, gazteak dira, oraindik ere urte batzuk gelditzen zaizkie beraiei landa eremuan lanean, beraiek dira momentuko ondorengotza.

Elkarrizketatutako sei ekoizlek, ondorengotza daukatela argi daukate. Sei ekoizle hauetatik laurek, erreleboa familian daukate eta beste bi ekoizleak, familiatik kanpo.

Baserritar batzuk, hamahiruk hain zuzen, ez daukate batere argi beraien ustiaketak ondorengotza edukiko duen. Hauetatik sei ekoizlek, jarraipena edukiz gero familian edukiko dutela adierazi digute eta beste zazpi ekoizlek, jarraipena kanpokoa izan beharko duela.

41 ekoizletik hamahiru ekoizlek, erreleborik ez daukatela argi daukate. Hau, bi arrazoi ezberdinengatik gertatzen dela argitu dezakegu; bata familiako inork jarraitu nahi ez duelako eta ez dutelako kanpoko inor nahi etxean eta bestea, beraiek ez dutelako nahi ez familiako inork jarraitzea (oso lan gogorra dela eta ez dutelako nahi beraiek eraman duten bizia ondorengoek eramatea) eta ezta ere kanpoko inor ez dutelako nahi.

Ondorio garbi bat atera ahal izan dugu gai honen baitan; adin jakin batetik aurrera (60 urtetik gora), baserritarrak ez dira kanpoko inor beraien ustiaketan, lurretan, lan egitekoaren alde, nahiago dute 1.sektoreko jarduera hau bertan behera gelditzea. Alderantzizkoa gertatzen da ustiaketaren jabeak gazteak direnean, hauek kasu hipotetiko baten aurrean (gaur egungo erreleboa dira, ez dira ondorengotzan pentsatzen hasi), ez lieke axolako familiakoren batek ez badu jarraitzen kanpoko norbaitek jarraitzea.

4. BERTAKO PRODUKTUEN KONTSUMOA.

Interesgarria iruditzen zaigu, Zarautzen elikagaiekin lan egiten den sektore ezberdinak aztertzea, erabiltzen duten produktua bertakoa den edo ez jakiteko. Horretarako hiru lan ildo aztertu ditugu: elikagaien establezimenduak, jatetxe edota tabernak eta jangela kolektiboak.

Udaletxeak eman dizkigu Zarauzko lokal ezberdinen datuak lanean hasteko. Telefonoz jarri gara beraiekin kontaktuan.

4.1 ZARAUZKO ELIKAGAIEN ESTABLEZIMENDUAK:

Guztira 56 elikagai establezimenduren zerrenda eman digu Zarauzko udalak. Hauetatik 30kin lortu dugu kontaktuan jartzea.



Grafika 27. Zarauzko produktuen kontsumoa elikagaien establezimenduetan. (Hitz egindakoak).

Ikus dezakegunez, erdiak baino gehiagok, 20 establezimenduk, Zarauzko ekoizle bati erositako produktuaren salmenta egiten dute beste produktu batzuen artean.

Bertako produktuarekin lan egiten duten saltokien artean, 20tik 16rek arazorik gabe esan digute zein den beraiek erosten dien ekoizlearen izena eta beste lauek ez dute esaterik nahi izan.

Establezimendu batekin ezin izan dugu kontaktuan jarri, baina ekoizleekin bildu garenean, ekoizleak esan digu beraren bezeroak direla.

Beste kasu bat topatu dugu (bertako produktuarekin lan egiten duena) berak ekoizle bati zuzenean erosi beharrean, Zarautzen ekoiztutako produktuarekin lan egiten duen beste denda bati erosten diona.

Ezezkoa eman digutenen artean, hamar establezimendu, laurek ez dute produktu freskorik saltzen, hiruek ez dute informazio gehiago ematerik nahi izan eta falta diren beste hiru dendak, denak harategiak, Euskal okela erabiltzen dutela diote, baina lurraldeko beste puntu batzuetatik erositakoa.

Konprobatu ahal izan dugunez eta taulan ikus daitekeen bezala, Euskal Okela baimendutako harategiak hiru dira, kontuan hartzeko datua.

4.2 ZARAUZKO JATETXE ETA TABERNAK:

Kasu honetan 114 jatetxe eta tabernen zerrenda bat eman digu Zarauzko udalak. Hauetatik bederatzi establezimendu baztertu egin ditugu (okindegiak eta jatetxe kateak). Horrela 105 jatetxe eta tabernen izenekin gelditu zaigu zerrenda.

Azken zerrenda honetatik, 47 establezimendurekin ezin izan dugu kontaktatu (kontaktu zenbakia ezin izan dugulako lortu edota dugun kontaktu zenbakia gaizki dagoelako).

Kontaktuan jarri garen 58 jatetxe edo tabernetatik, 4 oporrengatik itxita daude (txostena amaitzean oraindik oporretan jarraitzen zuten) eta ezin izan dugu beraien erantzunik kontabilizatu. Guzti hau horrela, 54 establezimenduren erantzunak jaso ditugu ondorengo grafikoan.



Grafika 28. Zarauzko produktuen kontsumoa jatetxe eta tabernetan. (Hitz egindakoak).

Aurreko grafikoan (grafika28) ikusi ahal dugun bezala, hitz egindako establezimendu guztietatik 54 establezimendutik 36 establezimenduk ahal duten neurrian Zarauzko garaiko produktua erabiltzen dute eta 18 establezimenduk berriz ez.



Grafika 29. Zarauzko jatetxe, tabernetan kontsumitutako elikagaien jatorria.

Grafikoa interpretatzerako garaian, kontuan izan behar dugu zazpi establezimenduk elikagaiak toki bat baino gehiagotan erosten dutela.

Beraien baratzeko elikagaiak erabiltzen dituztenetatik batek bakarrik esan digu produktu gehiago behar duenean zuzenean ekoizleari erosten diola.

Sei kontsumitzailek bakarrik bereizi dute azokan erosten dutela, baina bertako baserritarrei. Hauetatik hiruek azokako baserritarrez gain bertako produktua saltzen duten dendetan ere erosten dute eta batek azokako beste postuetan.

Hamar dira azokan erosten dutenak (lehen aipatutakoak barne). Hauetatik birek esan digute ez dela beti bertako produktua izaten nahiz eta azokan erosi. Azokako erosle hauetatik bat dago produktu zehatzak ekoizleari zuzenean erosten dizkiona eta beste bat, bertako produktuak saltzen dituen dendara ere joaten dena.

Ekoizleari zuzenean erosten dieten jatetxe, tabernak zortzi dira. Kontuan izanda horietako batek bere baratzeko elikagaiak ere erabiltzen dituela eta beste batek azokan ere erosten duela. Hemen argitu beharra ikusten dugu bi establezimendu daudela baratza daukaten bi pertsona ezberdinei erosten dietenak, beraiek argitu digute ez direla baserritarrak.

Bertako produktua saltzen duten dendetatik hornitzen direnak bederatzi dira (kontuan eduki behar ditugu beste toki batean ere erosten duten laurak).

Hirurekin topatu gara ez dakitenak erosten dieten baserritar ustiaketaren izena eta beste birek berriz ez dute datu gehiagorik eman nahi izan.

Jatetxe edota tabernekin hitz egin dugunean, bertako produktuez hitz egiterakoan, kasu batzuetan argitu behar izan dugu bertako ez dela Zarauzko denda batean erostea, Zarautzen ekoiztutakoa dela.

Bertakoa kontzeptua garbi dutenak, argi utzi digute garaia denean erabiltzen dutela; **BERTAKOA ETA GARAIKOA** kontzeptua garbi dutela, gehien bat uda partean kontsumitzen dutela, produktu gehiago egoten delako.

4.3 ZARAUZKO JANGELA KOLEKTIBOAK:

Udalak bideratutako zerrendan sei jangela kolektibo agertzen dira.

Lau ikastola edota ikastetxeetakoak dira, bestea eguneko zentrokoa eta azkena berriz zaharren egoitzakoa.

Ikus dezakegu jangela kolektibo guztietatik bakar batek, bakarrik erabiltzen duela bertako produktua, baina ez digute esan nahi izan non edo nori erosten dioten.

Ikastola bateko jangelak, katerin baten bitartez egiten du lan, ez digute esan izena. Beste ikastetxeko jangela batean ez dute bertako produkturik erabiltzen. Ikastola bateko, jangelarekin ezin izan dugu kontaktuan jarri.

Eguneko zentroari eta zaharren egoitzari dagokionez, jangeletan ez dute bertako produktua erabiltzen.

5. MERKATUA.

Zarauzko udalak emandako merkatuko postuen zerrendan 27 ekoizle agertzen dira. 27 ekoizle hauekin kontaktuan jartzen saiatu gara.

- 9 ekoizleren kontaktua falta zaizkigu (denak eskualdeko ekoizleak dira).

- Ekoizle bat ez da merkatura joaten eta postuari baja eman nahi dio, horregatik ez du biltzerik nahi izan (eskualdeko ekoizlea da).

- 2 ekoizlek postuari baja eman diote (Zarauzko ekoizleak dira).

- Ekoizle batek ez du bildu nahi (Zarauzko ekoizlea da).

- Ekoizle baten kontaktu zenbakia gaizki dago (Zarauzko ekoizlea da).

- 2 ekoizlerekin ezin izan dugu harremanetan jarri, ez digute telefonoari erantzun (Zarauzko ekoizleak dira).

- 11 ekoizlerekin elkartu gara (9 ekoizle Zarauzkoak dira eta bi eskualdekoak). Zarauzko ekoizleetako batek azaldu du, egoera larria zuela salmenta aldetik eta horren aurrean juteari utzi diotela. 2015 urtean merkatura joatea utzi ziotela eta gaur egun beraien postua beste batek erabiltzen duela.

Zarauzko ekoizleen produktuen analisia egina daukagu aurreko puntuan, beraz, kanpoko ekoizleen produktuen analisia egingo dugu jarraian.

Bata, udalean, merkatuko postua familiako baten izenean agertzen da. Hauek merkatura barazkiekin joaten dira.

Bestea, udalaren zerrendetan bera da titular dagoena. Gehien bat landareekin joaten dira (Zarauzko merkatuan egoten diren landare zale bakarrak), nahiz eta barazki gutxi batzuk edukitzen dituzten.

5.1 EGOERA:

Bertara joaten diren ekoizleen iritzia jakin nahi izan dugu; bildu garen ekoizle guztiekin merkatuari buruz hitz egin dugun arren, saltzera joaten direnak baitakite zein den benetako egoera.

Ekoizle guztien artean, iritzi orokor bat dago, merkatuaren egoera kaskarra. Beraien salmentak kaskarrak direla diote, baina baita ere jendearen mugimendua, ez dagoela, oso pertsona gutxi joaten dela merkatura.

Arrazoi ezberdinak agertu dituzte gertakari honen aurrean:

- Merkatuko postuetako nahiz erosleen errelebo falta.

- Ordutegi txarra, lana egiten duten pertsona askok ezin du joan.

- Bezeroa erosotasun bila ibiltzen dela eta aparkaleku faltagatik eta hau ordaindu beharra dagoelako ez dela joaten.

- Bertako eta garaikoa ez den produktua saltzen egotea izango balira bezala.

- Postuetan egoten diren saltzaile batzuen jarrera.

Dena den, ekoizle gehienek argitu dutenez, uda partean salmenten igoera bat egoten da, alde batetik garai horretan salmentarako produktu gehiago egoten delako eta bestetik, Zarauzko biztanlerian gorakada bat izaten delako.

Gaur egun oraindik ere **joaten diren 10 ekoizletik erdiak, bost, salmentekin gustura agertu dira, ondo bizitzeko irabaziak ateratzen dituztela argitu dute.**

6. BEHARRAK, PROPOSAMENAK, ESKAERAK.

Puntu honetan, hitz egiten egon garen Zarauzko baserritar guztien (41) beharrak, proposamenak edota eskaerak hartuko ditugu kontuan.

Atal hau aztertzerakoan, egokiena banaketa bat egitea iruditu zaigu, hau da, **alde batetik baserritar ezberdinak auzoka banatu ditugu eta auzorako egin dituzten ekarpenak sailkatu ditugu, beste puntu batean merkaturako egindakoak eta azkenik bakarkakoak edota**

Zarautzerako orokorrean egindakoak. Hau horrela, azpi atal hauetan banatuta gelditu da: Urteta, Aitza, Argoin, Elkano, Santa Barbara, Untzain-Asti-Talaimendi-Abendaño, Merkatua eta orokorrak.

Esan guk atal honetan **gehien errepikatu diren ekarpenak aipatzen ditugula**.

6.1 URTETA:

Urteta auzoan hamaika bizilagunekin elkartu gara.

Zazpik azaldu digute arazoak dituztela internet zerbitzuarekin, zuntz optikoaren zain daudela, telefono konpainia bat pasa da baimen eske eta orain instalazioa egiteko zain daudela (badakite udalaren eskumenetik kanpo dagoela).

Ondoren zerrendatu ditugu auzo honetan egon diren behar, proposamen edota eskaerak:

1. Errepideak: Alde batetik, errepideen konponketa bat eskatzen dute, auzo nukleotik haratago eta bestetik errepideen bazterren garbiketa bat egiteko, gaur egun auzokideek egiten omen dute beraien terrenoetako zatiaren garbiketa.

2. Basurde eta oreinak: Arazo larria omen dago auzoan. Dena suntsitzen ari dira, etxe atariraino sartzen omen dira, auzokideak zerbait egin beharra dagoela ikusten dute.

3. Identifikazioa: Baserriaren/esplotazioaren izena daukaten identifikazio seinaleak jartzea etxe aurrean edota bidegurutzetan. (Etxe batzuek omen dituzte eta beste batzuek ez).

6.2 AITZA:

Aitza auzoan zortzi bizilagunekin elkartu gara.

Urtetan bezala, hemen ere agertu dira internet, telefono eta telebista arazoak, baina hainbat auzokide zuntz optikoaren zain agertu dira, egia da herri nukleotik gertuen daudenak direla eta urruntzen doazen heinean arazoa larritzen joaten dela (badakite ez dela udalaren eskumena).

Aitza auzoan dauden behar, eskaera, proposamenak:

1. Basurdeak eta oreinak: Izugarrizko suntsipenak ari dira eragiten eta zerbait egin beharra ikusten dute.

2. Errepidea: Alde batetik errepidearen konponketa, baita ere zabaltzea aztertzea.Bestetik, errepidearen bazterrak sarriago garbitzea proposatzen dute (orain urte batzuk urtean bitan garbitzen zituzten eta egoki egoten ziren orain berriz urtean behin garbitzen dituzte eta gaizki ikusten dute)

3. Identifikazioa: Etxe/esplotazio guztietan izenarekin seinale bat jartzea identifikatzeko (bidegurutzean, sarreran…). Baita ere helbidearen zenbakiaren normalizazio bat egitea, toki guztietan helbide berdina egon dadin. (Gaur egun ez da horrela gertatzen eta arazo asko izaten dituzte edozer egiteko ere, deklarazioa, dokumentuen eskaera…).

6.3 ARGOIN:

Argoin auzoan bost bizilagunekin hitz egin dugu.

Hauek dira egin dituzten eskaera, behar, proposamen:

1. Errepideak: Bai errepideen konponketa bat gutxienez zonalde batzuetan, baita ere errepidearen bazterrak garbitzea sarriago, baratza soziala daukaten pertsonek hondakin asko botatzen dituzte bazterretan eta ez ditu inork jasotzen.

2. Baratza sozialak: Baratza soziala daukatenen autoen erregulazioa. Ezin omen dute autoan joan bertaraino, baina ez dute araua betetzen, autoa errepidearen ertzean uzten dute eta besteen pasoa ezinezkoa egiten dute.

3. Korreoa: Korreoa iristen asko tardatzen du. Bilerarako deialdiaren eskutitza jarri ziguten adibide bezala, etxe batzuetara deialdia bilera egin ondoren iritsi zen. Arazo honi konponbide bat bilatu beharra ikusten dute.

6.4 ELKANO:

Elkano auzoan bost auzokiderekin hitz egin dugu.

Ona hemen jaso ditugun auzo honetako eskaera, behar, proposamenak:

1. Garraio publikoa: Garraio publikoaren zerbitzua auzora iristea. Auzoarentzat, auzokideentzat eta bertako negozioentzat onuragarria izan dezakeela ikusten dute.

2. Internet: Zerbitzuaren hobekuntza bat, denek zerbitzu egoki bat izan dezaten.

3. Korreoa: Korreo zerbitzua ez da oso ona. Gutunak ez dira garaiz iristen, denbora asko tardatzen dute.

4. Identifikazioa: Etxe/esplotazio bakoitzaren helbideko zenbakiak normalizatu, dokumentu guztietan berdina agertu dadin.

6.5 SANTA BARBARA:

Zazpi auzokiderekin hitz egin dugu Santa Barbara auzoan.

Ondorengo zerrendan bildu ditugu behar, proposamen edota eskaeren baitan egin dituzten ekarpenak.

1. Errepidea: Errepidearen konponketa orokor bat, gaur egun zati batzuk konponduta daude eta beste batzuk ez, dena ondo jartzea. Bestetik, errepidearen zabalkuntza bat egiterik egongo litzatekeen aztertzea, bertan dauden txakolindegietara kamioiak joaten dira eta larri ibiltzen baitira, eta azkenik, puntu batzuetan dagoen labaintasunari konponbide bat ematea, zenbait bihurgunetan arrisku handia baitago, batik bat euria egiten duenean.

2. Elektrizitatea: Dauden arazoak konpondu. Beraiek elektrizitate konpainiarekin egon omen dira, baina arazoa udalarena dela esaten diete.

3. Basurde, orein eta azeriak: Dena suntsitzen ari dira eta animaliak hiltzen. Arazo larri honentzako konponbide bat behar dutela adierazi dute.

4. Arkamurka: Alde batetik badaude bizilagun batzuk ez dutenak ulertzen eremu babestuaren gaia nola doan ezta ere zertarako den, eta beste batzuen kasuan, arkamurkak eduki eta mantentzearen obligazioaren aurrean, konpentsazio ekonomiko bat edukitzea proposatzen dute.

6.6 UNTZAIN-ASTI-TALAIMENDI-ABENDAÑO:

Untzain auzoan ez dugu inorekin biltzerik lortu.

Asti eta Talaimendi auzoetan, kide banarekin biltzea lortu dugu, baina egin dituzten ekarpenak ez dira auzo mailakoak izan, baizik merkatuarekiko edo beraienganakoak.

Abendaño auzoan, hiru bizilagunekin elkartu gara eta hauek egindako ekarpenak ere orokorrak izan dira, sektoreari edota merkatuari buruzkoak, ez auzo mailakoak.

6.7 MERKATUA:

Merkatuaren baitako ekarpenak kontuan hartzerakoan, bildu garen ekoizle guztienak (44) Zarauzkoenak nahiz eskualdekoenak hartu ditugu kontuan.

Egia da, puntu honetan **gehiago sakondu duten ekoizleak merkatura saltzera bertaratzen direnak izan direla.**

Ondorengo zerrendan daude beraiek egindako ekarpenetako batzuek:

1. Aparkalekua: Merkatuaren beherakadaren arrazoietako bat, eroslearentzat aparkaleku eroso falta dela aipatu dute, honen aurrean aparkalekua errazagoa izan dadin eskatzen dute. Ideia honen aurrean, proposamen ezberdinak agertu dira; adibidez, aparkaleku estalirako doako txartelak edukitzea erosleei emateko (gaur egun plazako denda batzuetan dagoen bezala) edota erosleentzat merkatu inguruan aldi baterako aparkalekuak jartzea (orain urte batzuk zerbitzu hau ba omen zegoen). Baina ekoizleentzako aparkalekuez ere mintzatu zaizkigu; beraientzat ere aparkalekuen beharra ikusten dute, deskargatu ondoren zaila delako aparkaleku bila hastea.

2. Produktua: Merkatuan dauden ekoizleak bertako eta garaiko produktua soilik saltzea, bakoitzak bere produktua.(Egungo azokako ordenantzan hori jartzen omen du). Gaur egun, saltzaile batzuk kanpoko produktua eta biltegi ezberdinetan erositako birsaltzen omen dute berea izango bazen bezala. Udalaren aldetik kontrol bat egotea beharrezkoa ikusten dute. Baita ere udalak bertakoa eta garaikoa den produktuari bultzada bat ematea (ados agertu dira 12/12 proiektuarekin).

3. Turismoaren laguntzaz udalak merkatuari bultzada bat ematea.

4. Karga/deskarga: Arratsaldetan joaten diren ekoizleei erraztasunak jarri, gaur egun oso zaila egiten baitzaie ordutegi horretan merkaturako deskarga eta ondorengo karga egitea.

5. Udaltzaingoa: Merkatu inguruan, isunak jartzeko garaian malgutasun gehiago izatea bai karga/deskarga egiten ari direnean, baita ere erosleen autoekin kargatzera hurbiltzen direnean ere.

6. Merkatua: Orokorrean irudia zaintzea.Alde batetik postu hutsak betetzea (hauek betetzeko erraztasunak jarri), postu guztietan prezio normalizatu bat edukitzea (beraien produktua saltzen ez duten pertsonak prezio oso baxuak jartzen omen dituzte eta beraiei ezin omen zaie konpetentziarik egin), merkatuko dinamizatzaile baten beharra ikusten dute, ordutegi zabalagoa (arratsaldez oso postu gutxi daude, inor prest ez badago, ba agian postu itxi batean baserritarren produktuak saltzea arratsaldez…).

7. Ordenantza: Gaur egungo egoerara moldatu dagoen ordenantza eta betearazi postuan saltzen egoten den edonori.

6.8 OROKORRAK:

1. TAO zerbitzua: Desadostasun handi dago aparkaleku zerbitzuarekin. Alde batetik ez dute ulertzen herritarrek zergak ordaindu eta halere aparkalekuagatik ordaindu beharra eta bestetik ez daude ados herri nukleotik kanpo bizi direnen kasuan, aparkalekuak horren urruti jartzea (asko lanera joaten omen dira herrira eta aparkatzeko zailtasun hauekin egiten dute topo).

2. Udalari eskatzen diete baserritarrak zaintzea. Herri nukleoa gehiago zaintzen dutela sentitzen dute. Askok aipatu dute azterketa hau egitea onuragarria dela eta lehen pauso bat izan daitekeela beraiek eskatzen duten aldaketa horretarako.

3. Baratza sozialak: Gai honekin ere desadostasun handia dago. Baserritarrentzat kaltegarria iruditzen zaie. Honez gain, bete beharreko baldintzak ez dituzte betetzen (familiako bat baino gehiagok dute etxe berdinean, salmentak egiten dituzte…) eta udalak ez du ezer egiten. Kontrol gehiago eskatzen dute eta zerbait egitea gai honekin.

4. Laguntzak: 1.sektorearentzako, gazte nekazarientzako eta nekazari hasi berrientzako laguntza gehiago, bai ekonomikoki baita ere beharrezkoa egiten zaien edozein gairekin (paperak lortu, merkatuan postua…). Eraberritu behar diren etxe/baserrientzako diru laguntzak (leihoak aldatu, kanpoko margoketak…) orain urte batzuk zegoen moduan.

5. Bilerak: Bilera batetarako deialdia egiterako garaian, kontuan hartu nekazaritza mota ezberdinak lantzen dituzten denak eta baita ere jartzen diren garaiak, egunak eta orduak.

6. Elkartea: Baserritarren elkarte baten beharra aipatu dute. Elkarte baten eraketa non auzo guztietako ordezkari bat egon beharko lukeen gutxienez.

7. Taxia: Egon zen taxi zerbitzua berreskuratzea. Gehiago kontrolatuta. Faltan botatzen den zerbitzu bat dela aipatu dute.

7. EKINTZA PLANA.

EKINTZA	EPE LABURRA	EPE ERTAINA	EPE LUZEA	ARDURADUNAK	BESTE ARDURADUNAK
Udala eta baserritarren arteko harremanak errazteko bideak jorratu	X			Udala	Baserritarrak, Urkome
Sektorea aktibatu, gazteak sartu	X			GFA	Udala, Urkome, Fraisoro, Hazi…
Lurren eskuragarritasuna bultzatu	X			GFA	Udala,
Merkatuaren irudia sortu	X			Udala	Urkome
Merkatuko dinamizatzaile baten figura sortu		X		Urkome	
Merkatuko postuak erregulatu (prezioak, ziurtagiriak)		X		Udala	Merkatuko baserritarrak
Baratza sozialen kontrol bat	X			Udala	
Herriko ekoizleen ekoizpena sustatuko duten irizpideak lehiaketa publikoetako pleguetan sartu		X		Udala	
Ostalaritzako eragileekin elkarlana sustatu		X		Udala	Urkome, ostalariak, Zurekin
Herriko dendariekin elkarlana sustatu		X		Udala	Urkome, dendariak, Murkil
Herriko bazkari kolektiboetan bertako produktua sustatu		X		Udala	
Udalerrian propaganda, informazio eta komunikazio kanpaina ikusgarriak egin		X		Udala	Urkome
Sentsibilizazio kanpainak	X			Udala	Urkome

Taula 8. Ekintza plana.

1. Udala eta baserritarren arteko harremanak errazteko bideak jorratu.

2. Sektorea aktibatu, gaztea sartu: 1. sektorean gazte, langabetu eta ikasleen txertaketa bultzatu. Ondorengotza falta handia ikusi da elkarrizketak egin ondoren. Elkarlanerako sare bat sortu udala eta eragile ezberdinen artean.

3. Lurren eskuragarritasuna bultzatu: Lurren beharrean dauden ekoizle eta ekoizle berriak eskuragarri eduki ditzaten.

4. Merkatuaren irudia sortu.

5. Dinamizatzaile baten figura sortu: Merkatuaren eguneroko martxa aurrera eramango duen pertsona baten beharra ikusten dute bertan egoten diren baserritarrek. Eskualde mailako behar bat ikusten dugu.

6. Postuen erregulazio bat: Bertako eta garaiko produktuen erreferentzi puntu bat izan behar badu merkatuak, gaur egungoa erregulatu, gaur egun ez delako horrela gertatzen.

7. Baratza sozialen kontrol bat.

8. Herriko ekoizleen ekoizpena sustatuko duten irizpideak lehiaketa publikoetako pleguetan sartu: eraikuntza publikoetako jangelak, jatetxeak edota tabernak lehiaketara ateratzean, balorean jartzea bertako produktuaren erabilera.

9. Ostalaritzako eragileekin elkarlana sustatu: Herriko taberna eta jatetxeak bertako eta garaiko produktua erabiltzera bultzatu. Elkarlanerako sare bat sortu udala, Urkome eta Zurekin (ostalarien elkartea).

10. Herriko dendariekin elkarlana sustatu: Herriko dendetan bertako eta garaiko produktuaren salmenta egitera bultzatu. Elkarlanerako sare bat sortu udala, Urkome eta Murkil (dendarien elkartea).

11. Herriko bazkari kolektiboetan bertako produktua sustatu.

12. Udalerrian propaganda, informazio eta komunikazio kanpaina ikusgarriak egin: Toki ezberdin eta estrategikoetan bertako produktua eta azoka bultzatuko dituen propaganda, informazio eta komunikazio kanpaina ezberdinak gauzatu.

13. Sentsibilizazio kanpainak: Biztanleriari bideratutako elikagaien, hauen jatorriaren eta nutrizioaren inguruko sentsibilizazio kanpainak egin.